

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN AGIRIA

Etika Batzordeak Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren menpeko zuzenak dira, eta jaio ziren egungo arautegia bete asmoz, unibertsitateko komunitatearen ikerketaren garapenei eta betebeharrak berriei erantzuten laguntzeko.

Ebaluazio lana bere gainean hartzen duten Administrazio eta Zerbitzuetako kideek eta irakasle-ikertzaileek musutruk egiten dute, ez baitute ordainsaririk jasotzen. UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, 2014ko urtarrilaren 30eko saioan onarturiko prozedura jarraituz deialdi publiko batean hautatzen dira ebaluatzaileak.

Batzorde desberdinetan parte hartzen duten batzordekideak (AZP eta PDI) inolako zalantzarik gabe babesten ditugu, eta halaber, zinez eskertzen diegu egiten duten lana: lana borondate onarekin egiten dute eta gure unibertsitatea hobetzeko espirituarekin. Bereziki babestu nahi ditugu, beraien lanaren ospea kinka larrian jarri dezaketen aipamen publikoak jaso dituzten pertsonak.

Unibertsitatea, berez, eztabaida foro zein ideien eta ereduaren alderatze tokia da; hori bai, errespetu arauak jarraituz. Eztabaida manifestu bat bilakatzea, pertsonak ideien ordean erabiliz, unibertsitatearen espirituaren aurkakoa da.

Ikerketa arloko Errektoreordetza beti zabalik egon da etika batzordeari buruz planteatu zaizkion iradokizun eta oharrak eztabaidatzeko. Kasu honetan, uztailaren amaieran protesta eskutitza jaso bezain laister (unibertsitatearen iragarki oholan duela gutxi publiko egin dena) Errektoreordetzak irailerako bilera batera deitu zituen sinaduren bultzatzaileak. Bileraren helburua sinatzaileek aurkeztutako arazoen aztertzea eta eztabaidatzea zen. Audientzia eman nahi izan genien, baina ezezkia eman zuten. Izan ere, bileraren data eta tokia elkarren artean zehaztu ondoren (2016ko irailaren 22rako) bilerara etorriko ez zirela jakinarazi baitziguten.

Ikerketa arloko Errektoreordetza zabalik zegoen, dago eta beti egongo da jasotzen dituen iruzkinak zorrotasunez aztertzeko eta iruzkina igorritakoekin kontrastatzeko eta iruzkinen aplikazioa komenigarria ote den zehazteko. Era berean, ikerketa arloko errektoreordetzak Etika batzordetan parte hartzen duten pertsona guztiek merezi duten babes instituzional eta akademikoa esplizituki aitortzen du, baita bere lana eskertu ere.

Leioan, 2016ko azaroaren 11n